

BESTELAKO XEDAPENAK

SEGURTASUN SAILA

3300

EBAZPENA, 2024ko ekainaren 26koa, Joko eta Ikuskizun zuzendariarena, «Lokalaren erabilgarritasun-agiria» eta «Gaitasungabetze-adierazpena» eredu normalizatuak onartzen dituena.

120/2016 Dekretuak, uztailaren 27koak, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duenak, honako hau ezartzen du 1. xedapen gehigarrian: «Jokoaren arloan eskuduna den Eusko Jaurlaritzako sailak honako hauei dagozkien eredu normalizatuak argitaratu ahal izango ditu: aurretiazko komunikazioak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gaikuntza-tituluak jasotzeko beharrazko eskabideak».

18/2020 Dekretuak, irailaren 6koak, Lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 5. artikuluan ezartzen duenez, Segurtasun Sailari honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkie:

«(...)

f) Jokoa, apustuak eta ikuskizunak».

6/2021 Dekretuak, Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, 16. artikuluan xedatzen duenez, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari hauek dagozkie:

«a) Ausazko jokoei buruzko politika publikoak egitea, eta jokoaren erregelamendu orokorrak Euskal Autonomia Erkidegoan jokoa arautzen duen agintaritzari ematen dizkion ahalmenak eta egitekoak gauzatzea, honako hauekin lotuta, beste organo batzuen eskumenekoak ez badira: baimenak, txostenak, homologazioak, kontrolak, ikuskapenak eta zehapenak».

Uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuaren 117. artikulua xedatzen duenez (otsailaren 8ko 19/2022 Dekretuak aldatu zuen), ostalaritzako establezimendu batean, dantza-areto, dantzaleku edo diskoteka batean edo apustu-lokal gisa gaituta ez dagoen joko-lokal batean B motako makina bat edo makina laguntzaile bat instalatzeko kasuan, aurretiazko jakinarazpenarekin batera, agiri batzuk aurkeztu behar dira, artean:

«c) Kokatze-buletina izenpetzen duenaren aitortzea, zeinetan aitortuko baitu baduela lokal bat. Horrek ez du esan nahi jarduera burutzeko beharrezko lizentziak edo dagozkion baimenak ere eskatuko ez zaizkionik».

Bestalde, 120/2016 Dekretuaren 119.3 artikulua kokatze-buletina azkentzeko arrazoiak ezartzen ditu, artean, alderdietako batek joko-makina ustiatu nahi ez izatea eta horrek kokatze-buletin berriak zigilatze gaitasungabetzea ekartzea. Egoera hori egiaztatze eredu normalizatu bat sortu da.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Dokumentu hauen eredu normalizatuak argitaratzea:

1.— Kokatze-buletina izenpetzen duenaren lokala erabilgarri dagoela egiaztatze agiria (120/2016 Dekretuaren 117.2.c) artikulua, 19/2022 Dekretuak aldatu zuena).

2.– Desgaikuntza-adierazpena, uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuaren 119.3 artikuluan aipatzen dena.

Ebazpen honi eranskin gisa erantsi zaizkio bi dokumentuak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Segurtasuneko sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 26a.

Joko eta Ikuskizunen zuzendaria,
AITOR MIKEL URIARTE UNZALU.

ARETOAREN ERABILGARRITASUN ADIERAZPENA

Abizenak eta izena:
NAN/AIZ:
Nire izenean <input type="checkbox"/>
Enpresa honen ordezkari gisa: _____ Enpresaren IFK: _____
Establezimenduaren izena _____ _____
Helbidea: _____ Udalerria: _____ Lurraldea: _____

ADIERAZTEN DUT:

<p>Nire ardurapean, Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari emandako datuak egiazkoak direla, Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duen uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuaren (uztailaren 27ko 120/2016 Dekretua, otsailaren 8ko 19/2022 Dekretuak aldatutakoa) 117.2 artikulua ondo onartarazi; eta lokalaren titularra naizela, hauxe bainaiz:</p> <p><input type="checkbox"/> JABEA. <input type="checkbox"/> ERRENTARIA. <input type="checkbox"/> BESTELAKOAK (gozameduna, lagapen-hartzailea...).</p> <p>Era berean, adierazten dut badakidala hitzartzen dudana kokatze buletina bertan behera geratuko dela, baldin eta ematen ditudan datuetan edo aurkezten dudana dokumentazioan funtsezko akatsak daudela frogatzen bada. Izan ere, badakit datu faltsuen edo agiri manipulatu bidez baimenak lortzea Jokoa arautzen duen azaroaren 8ko 4/91 Legearen 25.9 artikuluan jasota dagoen arau hauste oso larria dela eta zehapena ezarriko dela Lege horren 31. Artikuluan jartzen duen arabera.</p>
Eskabidearen lekua eta eguna
Interesdunaren izenpea

DESGAITZEA

Izen-abizenak:	IFZ:
Nire izenean dihardut jabe gisa, sinadura-erreserbarekin, edo ostalaritza establezimenduaren titular gisa <input type="checkbox"/> Honen izenean dihardut:	
Ostalaritza establezimenduaren izena:	
Helbidea:	
Udalerria:	Lurraldea:

DEKLARATZEN DUT:

- Ez dudala behean aipatzen den makina ustiatzen jarraitu nahi.
- Desgaitzei buruzko araudia ezagutzen dudala, eta bereziki Euskal Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duen 120/2016 Dekretuaren 119.3 artikulua (19/2022 Dekretuak emandako idazkeran), hain zuzen:

«Alderdietako batek indarrean dagoen kokatze-buletinarekin joko-makina bat ustiatu nahi ez badu, artikulua honen lehen paragrafoan ezarritakoa gorabehera, Jokoa Arautzeko Agintaritzak hau ebatziko du:

a) Erantzukizuna establezimenduaren titularrarena bada, kokatze-buletin berriak zigitatzeko desgaitzea, harik eta aurrekoak zeukan epea bete arte.

b) Erantzukizuna enpresa operadorearena bada, ustiapen-baimena ezin edukitzea kokatze-buletinean adierazitako epea bete arte.

Bi kasuetan, baimena "ustiapenik gabeko igurikimena" egoerara igaroko da. Operadoreak baimenik ez badu, desgaitzuntza ondorioz gabe geratu ahal izango da, bi alderdiak ados jarrita, eta makinaren ustiapenari berrekingo zaio kokatze-buletinean aurreikusitako moduan».

- Badakiela, ustiatu nahi ez izate horren ondorioz, B motako makinak instalatzeko baimen berriak zigitatzeko desgaituta egongo dela egun honetara arte: _____.

Makina hau kentzeko eskaera (desgaitzea dakar). Atzealdeko deklarazioa izenpetzen dut.

ENPRESA OPERATZAILEA

Izena: _____.

Ustiatzeko baimena: _____.

Buletinaren eginbide data: _____.

Indarraldiaren amaiera eguna: _____.

MAKINAREN DATUAK

Modeloa: _____.

Erregistro zk.: _____.

Serie zk.: _____.

Eskabidearen lekua eta eguna

Interesdunaren izenpea